

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

2024ko ekitaldirako aurrekontu orokorrean egitaratzeko udal araudiaren IV. eranskinean, musika ikasteko bekak deialdia azaltzen da

BDNS (identifikatzailea): 751584.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/751584>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. Onuradunak

Barrundiako udalak bekak emango dizkie honako musika-ikasketak egiten dituzten adingabe guztiei, baldin eta Barrundian erroldatuta badaude: 1. mailako irakasgaiak, musika-hizkuntza, instrumentua, armonia modernoa, instrumentu-taldea edo comboa, ahots-taldea eta irakas-kuntza indartua edozein udal musika eskolatan.

Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea

Musika ikasketak egiten dituzten Barrundian erroldatutako pertsona guztiei bekak emateko baldintzak arautzea.

Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak

Udalbatzak, 2023ko abenduaren 28an egindako bilkuran, musika ikasketetarako bekak emateko oinarriak onartu zituen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kopuru osoa: 5.000,00 euro.

Aurrekontu partida: 320.480.001.

Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea

Dokumentazioa aurkezteko epea 2024ko urriaren 31ra arte izango da.

Ozaeta, 2024ko apirilaren 10a

Alkate-udalburua
IGOR MEDINA ISASA